HISTORIA EZAGUTZEKO ZENTROA
CENTRO DE INTERPRETACIÓN HISTÓRICA

# Erakusketa autogida
# Autoguía exposición



**Bisitarako ordutegia:** asteartetik larunbatera goizeko 10etatik 14etara, eta ostegunetan eta ostiraletan goizeko 10etatik 14etara eta arratsaldeko 5etatik 7etara.
**Horario de visita:** de martes a sábado de 10 a 14 h. y jueves y viernes de 17 a 19 h.

**Bisita gidatuak:** Aldez aurretik hitzordua hartu behar da.
**Visitas guiadas:** Imprescindible cita previa.

Palacio Jane jauregia, Udiarraga kalea 38, 48490 Ugao-Miraballes (Bizkaia)
Tel. 94 648 07 04 • Fax 94 648 18 93 (Udaletxea/Ayuntamiento)
Kultur-etxea.ugao@bizkaia.org

# Espazio fisikoa eta ingurune naturala
# El espacio físico y el medio natural

Non dago Ugao-Miraballes?

Ugao-Miraballes se encuentra en:




## Nolakoa da Ugao-Miraballes?

Grafiko hauen bidez, beste herri batzuekin aldera dezakezu.

## ¿Cómo es la villa de Ugao-Miraballes?

Con estos gráficos podrás comparar.

AZALERA / EXTENSIÓN




ALTUERA / ALTITUD




BIZTANLE KOPURUA / POBLACIÓN



# 2 Testuinguru arkeologikoa
# El contexto arqueológico

| urteak<br>años | aroa<br>periodo | jendea<br>gente | eraikuntzak<br>edificaciones |
|---|---|---|---|
| K.a. 35.000-3.000<br><br>35.000-3.000 a.C. | Goi eta Erdi Paleolitikoa<br>eta Epipaleolitikoa<br><br>Paleolítico Medio, Superior<br>y Epipaleolítico |  | Axlorreko haitzuloa (1)<br>Balzolako haitzuloa (2)<br><br>Cuevas de Axlor (1)<br>Cuevas de Baltzola (2) |
| K.a. 3.000-350<br><br>3.000 a.C.-350 a.C. | Neolitikoa, Brontze Aroaren<br>Bukaera eta Burdin Aroa<br><br>Neolítico, Bronce final<br>y Edad de Hierro |  | Gorbeiako eremua<br>eta gurutzearen dolmena<br>Malmasineko Castro (3),<br>Arrigorriagan<br><br>Las áreas del Gorbea<br>y el dólmen de la cruz<br>Castro de Malmasín (3) en<br>Arrigorriaga |
| K.a. VI. mendea -<br>K.o. V. mendea<br><br>s. VI a.C. - V d.C. | Garai Erromatarra<br><br>Época Romana |  | Aloriako San Juan (4)<br>Arrankudiagako San Pedro<br><br>San Juan de Aloria en Orduña (4)<br>San Pedro de Arrankudiaga |
| IX. mendetik<br>XV. mendera<br><br>s. IX-XV Edad Media | Erdi Aroa<br><br>Edad Media |  | Zeberioko Gurutze Santua (16)<br>Barañanoko San Anton<br>Orozkoko elizako portada (13) eta<br>Andra Mari elizako<br>portada (16), Galdakaon<br>Elejabeitia gaztelua (15)<br>Orozkoko Aranguren dorretxea (17),<br>Zeberioko Areilza dorretxea (18) eta<br>Basauriko San Migel dorretxea<br>Laudioko Gardea zubia (20) eta<br>Galdakaoko Torrezabal zubia (21)<br><br>Santa Cruz de Zeberio (16)<br>San Antón de Barañano<br>Portada de la iglesia de Orozko (13)<br>y de Andra Mari (16) en Galdakao<br>Castillo Elejabeitia (15)<br>Casas Torre de Aranguren en Orozko<br>(17), de Areilza en Basauri (19)<br>Puentes de Gardea en Laudio (20)<br>y de Torrezabal en Galdakao (21) |

# 3 Ugao-Miraballesen Sorrera
# Fundación de Ugao-Miraballes

Udalerria 1375eko martxoaren 4an sortu zen. Egun hartan, Don Juan Infanteak-Bizkaiko Jauna eta gerora Gaztelako Juan I.a erregea-Villanueva de Miraballes izeneko hiribildua sortu zuen Ugaon, Zeberioko "gizaki onek", kapareek eta nekazariek eskatuta.

Bilbao hiribildua zen, eta Bilbao beste hiribildu bat sortzearen aurka zegoen, Ugao Bilbotik Gaztelarako bidean baitzegoen. Bizkaiko jaunaren ikerketaren ondoren, Ugao sortu zen, Almazanen (Soria) Hiri Gutuna sinatuta.

El 14 de marzo de 1375, el Infante Don Juan, Señor de Vizcaya y futuro rey Juan I de Castilla, funda en el lugar de Ugao una villa llamada Villanueva de Miraballes a petición de los "hombres buenos", hidalgos y labradores de la comarca Ceberian (Zeberio), ya que en Ugao se comerciaba antes de fundarse Bilbao.

La villa de Bilbao se opuso a la fundación de esta otra villa, al encontrarse Ugao en el camino de Castilla hacia Bilbao. Tras la investigación del Señor, finalmente se funda, sellando la Carta Puebla en Almazán, provincia de Soria.



# 4 Erdi aroko hiribilduak
# Villas medievales

Hiribilduak erregeek eta jaunek beren erresumak eta jaurerriak aberastu nahi zituztelako sortu ziren, eta, horretarako, jabetzak inguratu eta gotortu egin ziren. Horri esker, hainbat gauza lortu zen: biztanleak babestea (Ermua, Durango...), salgaien zirkulazioa ziurtatzea (Balmaseda, Orduña, Ugao-Miraballes...) eta portuen arteko merkataritza bermatzea (Plentzia, Bermeo, Lekeitio...).

Hauek dira Bizkaiko hogei hiribilduak eta hiri bakarra (Orduña).

Las villas se fundan por la obligación de reyes y señores de enriquecer sus señoríos y reinos, cercando y fortificando sus posesiones. Se consigue seguridad de la población (Ermua, Durango...), garantizar el tráfico de mercancías (Balmaseda, Orduña, Ugao-Miraballes...) y el tráfico comercial entre puertos (Plentzia, Bermeo, Lekeitio...).

Estas son las veinte villas y la única ciudad (Orduña) de Bizkaia.



# 5 Bizkaiko hiribilduak, espazioa ordenatzeko formak
# Villas vizcaínas como formas ordenadoras del espacio

Oro har, kantoiek lotutako kale paraleloen bidez antolatzen dira hiribilduak. Dena dela, Bilbao, adibidez, kaleak gurutzatuz eratuta dago; Lekeitio, berriz, lur eremuari egokituta; eta Ugaok kale bakarra du (Udiarraga kalea), eta kale hori Gaztelako Errege Bidearen zatia da.

Generalmente las villas se organizan mediante calles paralelas unidas por cantones. Algunas como Bilbao se ordenan mediante el cruce de calles, otras como Lekeitio se adaptan a las condiciones del terreno y otras como Ugao sólo constan de una calle (calle Udiarraga) que forma parte del Camino Real de Castilla.



# 6 Bidaiarien eta merkatarien abegia
# La atención a viajeros y mercaderes

## Ostatuen funtzionamendua:

- Bidaiariaren abegia:
  - Janaria
  - Atsedena
  - Taberna
- Zaldiaren arreta:
  - Errementeria
  - Garbiketa
  - Atsedena

Hiribildua Errege Bidearen zatia da; hain zuzen, Gaztelaren eta Bilbao eta Bermeoren arteko merkataritza bidea. Beraz, bidaiariei, merkatariei eta abarrei lagundu eta atsedena eskaini beharra zeukan. XVI. mendean, hiru ostatu zeuden Ugao-Miraballesen.

## Funcionamiento de las posadas:

- Atención viajero:
  - Comida
  - Descanso
  - Taberna
- Atención caballo:
  - Herrería
  - Limpieza
  - Descanso

Al estar la villa ubicada dentro de lo que era el camino real, esta ruta comercial hace que Miraballes sea un punto intermedio de paso desde Castilla hasta Bilbao o Bermeo. Por tanto esto hace que exista una obligación de abastecer o dar descanso a los viajeros, mercaderes, etc. En el siglo XVI en Ugao-Miraballes existían tres mesones.



# 7 Bizkaiko hiribilduen erregimen juridikoa
# El régimen jurídico de las villas vizcaínas

Logroñoko Forua da Bizkaiko hiribildu ia guztien legislazio komuna, biztanle berrien frankiziak eta askatasunak zehazten baitzituen. Gatazkak hiru instantzia hauetan ebazten ziren.



## 1. INSTANTZIA

Ugao-Miraballesen, abuztuaren 24an (San Bartolome egunean), hiribilduaren kontzejuak bi alkate aukeratzen ditu urtero. Aukeratzeko sistema hau da: kapela batean hiru papertxo sartu behar dira hiru bizilagunen izenekin, eta esku garbi batek papertxo bat aterata alkatea aukeratzen da. Orduan, aginte makila ematen zaio alkateari, horixe baita justiziaren ikurra. Martin de Uriondok (1571) ez zuen aginte makila hartu nahi izan, eta 50.000 marabedi ordainarazi eta kartzelan sartu zuten.

## 2. INSTANTZIA

Bilbaok jaurerrian gero eta nagusitasun handiagoa zuenez, Bermeori bigarren instantzia kendu zion, eta, horren ondorioz, Bilboko alkatearengana joan behar izaten zen.
Bilboren eta Bermeoren arteko distantzia egiteko, Ugaoko biztanleek gutxi gorabehera 3 ordu behar zituzten oinez edo bi ordu zaldiz.

## 3. INSTANTZIA

Bizkaiko jauna zen aldez aurretik konpondu gabeko arazoak konpontzeko azken instantzia. Harekin hitz egitea, ordea, ezinezkoa zen.

El Fuero de Logroño es la Legislación común a casi todas las villas vizcaínas que fija franquicias y libertades de los nuevos pobladores. Los conflictos se resolvían en tres instancias.

## PRIMERA INSTANCIA

En Ugao-Miraballes el 24 de agosto (Día de San Bartolomé) es la fecha de la elección anual de los dos alcaldes por el concejo de la villa. El sistema de elección consistía en echar tres papeletas con los nombres de tres vecinos en un sombrero y una mano inocente sacaba uno eligiendo el alcalde. Después de la elección, al alcalde se le asignaba la vara, símbolo de la justicia. Martín de Uriondo (1571) no quiso la vara y fue obligado a pagar 50.000 maravesíes y pena de carcel.





## SEGUNDA INSTANCIA

Debido al creciente papel dominante de la villa de Vilbao en el señorío, arrebatando a Bermeo la segunda instancia, se debía acudir al alcalde de Bilbao.
Para recorrer la distancia que separa las dos villas, los vecinos de Ugao necesitaban aproximadamente 3 horas a pie o dos horas a caballo.

## TERCERA INSTANCIA

El señor de Vizcaya era la última instancia donde se dirimían los problemas sin solución anterior. El acceso a él personalmente no era posible.

# Burdinoletako lana
# Trabajo en ferrerías

Erdi Aroan ere jarduera garrantzitsua zen burdinoletako lana. Ugao-Miraballes oso garatuta zegoen hidrografian eta egur jardueretan. Ibaiaren indarrari esker, labeari eta gabiari oxigenoa ematen dioten hauspoak higitzen ziren, eta gabiek urtutako burdin "totxoak" kolpatzen zituzten, sarra kentzeko. Gero, burdinola handietatik burdinola txikietara eramaten zen burdina, salerosketarako prestatzeko. Behe Erdi Aroan, Arandia familiaren burdinola zegoen, familiaren izen bereko dorrearen ondoan.

Esta actividad ya poseía importancia en época medieval. Ugao-Miraballes poseía un gran potencial hidrográfico y maderero. La fuerza del río se utilizaba para mover los fuelles que alimentaban de oxígeno los hornos y los martinetes que golpeaban los "tochos" de hierro fundido para eliminar las escorias. De las ferrerías mayores se pasaban a las ferrerías menores donde se remataba el producto para su comercialización. Ya en la baja edad media existe en Ugao-Miraballes una ferrería perteneciente a la familia Arandia, situada próxima a la torre del mismo nombre.



# 9 Bizkaiko hiribilduen jarduera ekonomikoa
# Actividad económica de las villas vizcaínas

Normala denez, kostaldeko hiribilduetako biztanleak (Plentzia, Bermeo...) arrantzan aritzen ziren; batez ere, balea arrantzatzen.

Bilbokoak edo Balmasedakoak, aldiz, merkataritzan eta eskulangintzan aritzen ziren.

Ugao-Miraballesen, jarduera ekonomiko nagusiak burdinolak eta merkataritza ziren, Gaztelako Errege Bidetik ogia, burdina, oihalak eta abar eramaten eta ekartzen baitziren.





Como es normal, las villas costeras (Plentzia, Bermeo...) se dedicaban a la pesca, destacando la ballena.

Las villas como Bilbao o Balmaseda al comercio y a la artesanía.

En el caso de Ugao-Miraballes la actividad económica se centra en la fundición de hierro y en el comercio, gracias a la presencia del camino real de Castilla por el cual circula pan, hierro, textiles, etc.



# Bizkaiko hiribilduetako gizartea
# La sociedad en las villas vizcaínas

Erdi Aroan, gizartea horrela zegoen banatuta: nobleak, nekazariak, merkatariak eta kleroa.

Ugao-Miraballesen, hiribilduaren hegemonia Abendaño-Abandia familiak zuen. Hiri gutunean agertzen zenez, hiribilduko leinu boteretsuenetako bat zen, botere ekonomiko handia baitzuen.

En la época Medieval, la sociedad se dividía en: Nobles, Labradores, Comerciantes y Clero.

En Ugao-Miraballes aparece una familia que ostenta la hegemonía de la villa, los Abendaño-Arandia, que ya en la carta puebla aparecen como uno de los linajes poderosos de la villa, con un gran potencial económico.



ESCUDO ABENDAÑO



ESCUDO ARANDIA



# Ugao-miraballesen eboluzio historikoa
# La evolución histórica de Ugao-Miraballes

| mendeak<br>siglo | egoera<br>situación | | urtea<br>año | biztanleak<br>n.º habitantes |
|---|---|---|---|---|
| XV-XVI | Krisi demografikoa<br>• Gerrak<br>• Izurria<br>• Suteak<br>• Hiribilduko lurra ez zen emankorra | Crisis demográfica<br>• Guerras<br>• Peste<br>• Incendios<br>• Tierra de la Villa estéril | 1.514 | 170 (Zeberiorekin)<br>170 (con Zeberio) |
| XVII | Susperraldia<br>• Bake garaiak<br>• Merkataritzarako itsasontziei eutsi zitzaien<br>• Amerikako enpresen kapitalak | Recuperación<br>• Periodos de paz<br>• Mantenimiento flotas comerciales<br>• Capitales de empresas de América | 1.685 | 150 (Zeberiorekin)<br>150 (con Zeberio) |
| XVIII | • Maiztergoa handitu zen (errentamendua).<br>• Laborantza handitu zen; siderurgia, gutxitu. | • Incremento del Inquilinato (arrendamiento)<br>• Aumento de cultivos, descenso siderurgia | 1.787 | 415 (Zeberiorekin)<br>415 (con Zeberio) |
| XIX | • Nekazariak eta langileak ziren gehienak<br>• Gerra Karlista<br>• Industrializazioa<br>• Independentzia Gerra | • Mayoría de labradores y campesinos<br>• Guerra carlista<br>• Industrialización<br>• Guerra de independencia | 1.825 | 356 |
| XX | • Erabateko industrializazioa (40ko hamarkada)<br>• Populazioaren hazkundea (immigrazioa) | • Industrialización total (años 40)<br>• Crecimiento de la población (Inmigración) | 1.960 | 2.394 |
| XXI | Garapen ekonomikoa, gure ingurunea eta kultura babestuz | Desarrollo económico respetando nuestro entorno y cultura | 2.004 | 4.173 |

# 12 Industrializazioa
# Industrialización

XX. mendearen erdialdeko industrializazio prozesuaren ondorioz, Ugao-Miraballesen zenbait industrialde egin ziren, eta horrek hazkuntza demografiko handia eragin zuen. Gainera, egurra, kimika eta ontziak lantzeko tailerrak sortu ziren, baina metalurgiak –Erdi Aroko burdinolen oinordekoak– zuen protagonismo osoa.

El proceso de industrialización de mediados del s. XX hacen que surjan en Ugao-Miraballes una serie de polígonos industriales que protagonizan un destacado despegue demográfico. Surgen también talleres de madera, químicos y de envases, aunque la metalurgia, herencia de aquellas ferrerías medievales, posee todo el protagonismo.

